

Gotzon Barandiaran

LARRABETZUKO LITERATURA ESKOLAKO KIDEA

Desagerrarazi kultura

Antza, Iraken, Amerikako Estatu Batuen (AEB) eta bere eskupekoen okupazioa salatu duten 1.500 intelektual hil egin dituzte. Bagdadeko liburutegi nazionalen milioi bat liburu gutxiago ei dago eta irakiarren ondare arkeologiko garrantzitsuenak desagertu egin dira. Baina zer axola du horrek egunero dozenaka hildako dauden herrialdean? Zer garrantzia izan dezake kultura idatzita gordetzen duten paperak gordetzeak heriotza merkatuetan saltzen den herrialdean? Zertarako jakin behar dute nola bizi ziren duela milaka urte bihar biziko diren ez badakite?

Bizkaiko burdinazko gerrikoaren defentsan izandako borrokak gogorazteko Larrabetzun egindako jardunaldien ostean hasi zaizkit ideiak korapilatzen eta azkura sortzen. Izan ere, jardunaldiotan izan ditugun hizlari gehienak ados daude baieztapen honekin, behinik behin: 1936ko gerrari buruz jakin behar genukeena baino dezente gutxiago dakigu, giltzape zabalgaitzegietan gordetako dokumentu asko dago, erailketa askoren arduradunen oinordeko zuzenek euskaldunon memoria historikoa desagerrarazi eta gure nortasuna birdefinitzeko ahaleginean ari dira ordutik gaur egunera. Duela hilabete gutxi Nafarroako Udal nagusian, Francori hiriko seme kutuna izatearen izendapena kentzeko mozioa aurkeztu zuten



INIGO AZKONA

eta UPNren abstentzioari esker, bere horretan dirau *generalisimoak*, Iruñeko seme besoetako. Bitartean, Nafarroako Gobernua bertako idazleen antologia biltzen ari da. Idazle euskaldunak ez da inon ageri. Kontserbadoreenak kontserbak bereizten.

Harrigarria dirudiguke baina Iraken dagoen ekintzarik arriskutsuenetarikoa eta era berean heroikoenetarikoa, liburuzainek egiten dutena da, alegia, euren lantokietara joan eta liburuak balizko irakurleen eskuragai jartzea, jakinik, oso litekeena dela, intelektualen antzera erailak izatea.

Ez dakit gurean gudarien artean, liburuzainik izan ote zen, ez dakit gurean liburuak salbatzearen bizia eman zutenik izan ote zen, baina balego, galdera bat baino gehiago egingo nizkioke. Izan ere, jakin gura nuke zenbat eta noren liburuak erre zituzten gurean oraindik ere euren burua irabazletzat dutenen aurrekoek. Jakin gura nuke zergatik ez diguten inoiz irakatsi izan zirela EAJ-PNVkoak ez ziren idazle, kazetari, bertsolari, gudari eta kronistak; *Jaungoikoa eta Lagi Zarra* baino, pertsona eta bere egunerokoa hobetsi zituztenak.

berak ere galdetuko liekeela: zergatik ostendu zenituzten horien guztien izenak? ■

Jakin gura nuke zergatik ez
diguten inoiz irakatsi izan zirela
EAJ-PNVkoak ez ziren idazle,
kazetari, bertsolari, gudari eta
kronistak; *Jaungoikoa eta Lagi*
Zarra baino, pertsona eta bere
egunerokoa hobetsi zituztenak

HIRUKO TXIKIAN Joxemari Ostolaza



Ez da giro. Bazetorkiola, bazetorkiola eta azkenean jin zaio. Heldu den denboraldian Ejidora

joanen da Poli bisitatzer. Aspalditik zebilkigun hara begira, infernua deitzen dioten eremura erre ke erreka bonberoa bailitzan. Eta azkenetako ura ahitu. Eskarmentuz esan dezaket zailagoa dela jokalaria eskasenekin maila galtzea onenekin txapelduna izatea baino. Eta txapeldunak izan zirenean aurkarietan jokalaria hobeak aurkitu bazitezkeen ere, talde onena osatzeko gauza izan ziren. Oraingo honetan ahalak izan dituzte jokalariai aukeratzeko, ez nahi lituzketenak ekartzeko baina bai Lehen Mailan eroso antzera

Donostialdean

jokatzeko egokiak liratekeenak. Talde kaskarra osatu dute. Hasieratik ibili dira ezinean. Eta turroi garaian *enpanadak* ekarri dituzte.

Orain garbiketa dator, errudunen garaia. Denon Errealan bere errealitatea hobetzeko xedez jokaturako hainbati iritsi zaio damu una, baina ohi bezala ahulenean ordainduko dute erronda. Merke aterako zaie. Azkarrenek epaileena egingo dute. Jada hasiak zaizkigu. Eta gaitzerdi Eibarrek lortuko balu Ipuruan Realak jokatu behar izatea, eibartarrentzat Anoetako, berez, saria bailitzateke. Igandero eta publikoki aztertzen den taldeak bestelako fundamentua behar du bere inguruan, bulegari marrazoetatik urrun. ■